

honen asmoetako bat horixe dateke, gainera, azalean bertan dakarrenez: «Hau Deustuko jende normalak egindako lana da. Oso erraza da. Saia ezazu zure herrian».

Honelako aldizkari baten bigarren abantail bat ere seinalatu nahi nuke, oso laburki bada ere. Beraiek aitortzen dutena: «holan kaleko jendea eta goi mailako literatura arteko bidea erraztu nahi izan dugu». Tresna egokia dirudi, horretarako ere.

ZUBIBARRIko aldizkaritxo hau lekuko ona da azken 20-25 urteetan gure gizarteak izan duen aldaketa antzemateko. Jite honetako aldizkaririk bazen orduan ere (haietan jaió ziren oraingo idazle asko). Garai hartako eta oraingo aldizkari hauck funtzio bera badute ere, zer diferentzia edukinaren aldetik. Ingurunearen presentzia askoz ere eragikorragoa da orain, eta, esan bezala, oso bestelakoa da inguru eta giro hori. Aldizkaritxo honen gaitan agertzen den ingurunea, hau da: hiria, kalea, politika, biolentzia, iraultza, hizkuntza.

Oraingo eta duela 20 bat urteko aldizkari mota honen artean, edukinaz aparte, beste desberdintasun bat ere nabarmen daiteke. «Gaurko gizona izan behar da» dio aldizkari horrek, baina nonbait, Deustuko gaurko gizonak ez du olerkirik egiten. Deustuko kaleetan ezina ote poesia? Naabri nabaria da olerki falta zenbaki honetan. Narratibatik jotzen du jendeak. Gure garaian, poesia zatekeen nagusi. Erromantikoagoak ginen gu. ■ *Joan Alzibar.*

Euskarazaintzaile batzuei bi hitz

Ez omen zaio garrantzirik eman behar garrantzirik ez duenari. Ez nagoke bada bi hitz erran gabe Iparralde honetatik, Hegoaldean ditudan aspaldiko ezagun eta kideko batzuei.

Erdarazko artikulu batean irakurri berri dut («DEIA» 1978-XII-27) elgarretaratu zaretela Eibarreko alde horretan, Kerexeta, Gaztañaga, Onaindia, Yurramendi, ene aspaldiko ezagunak eta beste zenbait «Euskararen berezitasun guztiak zaindu nahiz eta gure mintzairaren batasuna orozbat lagundu beharrez...» edo zerbait holako.

Gure eskualdeko nehoren izenik ez dut zuen elkartean aurkitu. Gu ez ote gara zuentzat Euskal Herria? Etorriak ginen bada joan den udan Bergarara, Zibero, Baxenabarre eta Lapurditik, gure berezitasunen aipatzeko eta beste euskalkietako haurridekin batunaren lantzeko, duela 60-80 urte Azkue, Eleizalde eta Brousain-ek ideki ziguten ildo beretik. Zuetarik anitzik ez dut han ikusi. Zergatik ote? Ala zuen arteko, zuen «txokoko» batasuna nahi duzue zuen artean egin, gu gabe, gero zuen «batasun» hura guri burutik behera ezartzeko?

Baditugu, egia erran, guk ere horrelako «euskaltzaleak» beren «txokokerietan» galduak, beren «txokoko» zedarrietarik hara ez baitute deus jakin nahi, «chakhurra» eta «gathüa» idatziko dizutenak, berek hori baizik ezpaitzuten ikasi. Bainan holakoak, «inkulturaren semeak», badoaz, Jainkoari esker. Gaur Iparralde honetako gehienek, egiazko batasuntzaleek, badakigu mugaren gainetik behatzen eta egiazko batasunaren altxorrera nahi genuke, guk ere, gure apalean gure idazle bakar batzuen ezta edo mamia ekarri. Hor ditugu eta Etxepare zaharra eta berria, Etxeberri biak, Leizarraga eta Axular, Hiribarren eta Duvoisin, Oxobi, Mirande eta Lafitte... Gutiz ez utz, adiskideak.

Jakin ere dut bestalde eta nere begiz ikusi, zuen artean agertzen duzuen euskal jakintsu handienaren izena, izen horren ja-beak berak ukatu zizuela. Horrelako egitate itsusia ez zuen aita Kardaberaz doneak lapurketa deitzen? Jaungoikoaren VII. mandamentuak «lapurketak», «ohointzak» eta «hold-up» mota guztiak debekatzeko eta eragozten dituela ahantzi ote duzue, jaun ohargarriak?... Barka ausartzia.

Azkenkoz aitortu behar dizuet, zuetarik bati, Elorriko jaun agurgarriari, harrigarriak entzun dizkiodala erraiten Bilboko Irratitit joan den udazkenean. «Berrogei urtetako diktaturak baino kalte gehiago egin omen dio «euskara batuak» gure euskarari...» Mesedez, Don Jaime, astakeria handiegirik ez otoi jalgi xokotik. Entzuten zaitugu Baionatik. ■ *Piarres Xarritton.*

Hordago, «klasiko» deituak

Joan den urteak euskal kulturaren eman duen obra pozgarrienerokoa, hamazazpi «klasiko» deitzen berragitalpena izan da, HORDAGO egina. Seinalagarria eta eskergarria. Bestela betikoan geunden: klasikoak, Voltairek esan zuenez, irakurtzeko baino, liburu apaletan gordeta edukitzeko dira, hautsak estalita. Euskal klasikoak, ordea, nekez eduki zitezkeen liburu apaletan ere, ez ziren eta inon aurkitzen.

Orain hiru urte, Kintana honela ari zitzaigun: «Maiz pentsatu dut Euskal Literatura, Platonen gogoko mundu zoragarritik landa, Euskal Literaturaren Historietan eta nonbaiteko norbaitzuen liburutegi preziatuetan omen dagoen zerbait dela, irakurle arruntak, oraintsu arte bederen, haren existentziaz bigarren eskuz zertxobait jakiteaz aski zuelarik, inoiz kritikalariek kondatzen zizkioten meritua zein okerrak pertsonalki konprobatzeko erarik gabe».

Tartasen *Ontsa hiltzeko bidea*-ren hitzaurrean irakurri genuen hori. Ongi dakigu, izan ere, zein zaila izan den guretzat «klasiko» deituak irakurri ahal izatea. Axular salbu, besteak ia eskurazinak